

Bihar, asteazkena, ez da Mondragon Unibertsitateko autobusaren zerbitzurik egongo

2009/02/24

Bihar, asteazkena, otsailaren 25a, egun guztian zehar ez HUHEZIn eta ez Enpresa Zientzien Fakultatean klaserik egongo ez denez, unibertsitateko autobus zerbitzua bi campus hauetara eten egingo da.

Arratsaldeko txandan eskolak izango dituzten Goi Eskola Politeknikoko ikasleentzako bestalde mantendu egingo da zerbitzua bertaraino. Goizeko txandako zerbitzua berriz, campus honetan ere etenda egongo da.

Ostegunean, otsailaren 26an, zerbitzuak berriz normaltasunez funtzionatuko du.

